

## **Batxilergo 2. Mailako**

### **GIZA ANATOMIA eta FISILOGIA irakasgairako PROGRAMAZIOA**

#### **1.- ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA**

Legearen arabera hauexek dira ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak:

1. G1. Zientzia, teknologia eta osasunkulturarako gaitasuna;
2. G2. Ikasten ikasteko gaitasuna;
3. G3. Matematikarako gaitasuna;
4. G4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna;
5. G5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna;
6. G6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna;
7. G7. Giza eta artekulturarako gaitasuna, eta
8. G8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

#### **2.- EDUKIEN DENBORALIZAZIOA**

**1go. EBALUAZIOA:** (36 saio inguru)

- 1.-LISERI APARATUA
- 2.- ARNAS APARATUA
- 3.- ZIRKULAZIO APARATUA

**2. EBALUAZIOA:** (36 saio inguru)

- 4.- IRAIZTE APARATUA
- 5.- NERBIO SISTEMA
- 6.-SISTEMA ENDOKRINOA

**3. EBALUAZIOA** (36 saio inguru)

- 7.-LOKOMOZIO APARATUA
- 8.- ZENTZUMEN ORGANOKAK
- 9.-UGAL APARATUA

Gai guztietan erabiliko den sistema berbera izango da. Hau da hasiera batean ikusiko dugu aparatua edo sistemaren anatomia. Anatomia ikusi ahala fisiologia deskribatuko da. Biak bukatu ondoren ikusiko ditugu gaixotasunarik arruntenak, eta gero ikasleek egingo dute galdetegi bat kontrolatu ahal izateko zenbateraino menperatzen duten gaia. Nire ustez

edukinagatik gai batzuk bereziak dira, esaterako lokomozioaparatu. Kasu honetan haiek prestatuko ditugu aurkezpen batzuk, besteen aurrean defendatu eta gero prestatuko dute galdetegi luze bat azterketa egiteko. Gai honetako balorazioa bien artean (aurkezpenaren eta azterketaren) batez bestekoa izango da.

### **3.- IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA**

Metodologia aktiboa eta parte hartzekoa izango da. Irakasleak azalpen teorikoak emango ditu berak prestatutako apunteen bidez (eta beti aurkezpenen bidez), eta gaia bukatu ondoren ikasleek egingo dute galdetegi bat beraien ikaskuntza prozesua kontrolatu ahal izateko. Egingo dituzte Power pointen bidezko aurkezpenak eta gai guztietan laborategiko praktikak, hala nola:

\*Tentsio arteriala neurtzea

\*Fehling erreakzioa

\*Almidoiaren tindaketa

\*Xaboiaren fabrikazioa

\*Proteinen desnaturalizazioa

\*Bihotz baten disezioa

\*Giltzurrun baten disezioa

\*Ehunen behaketa

Gero metodologian berebiziko garrantzia izango dute egingo ditugun azterketak. Test modukoak izango dira eta azterketa haiek egiteko ohitura ez dutenez nire ustez garatu behar dute azterketa mota haiek egiteko trebezia. Inportantea izango da etorkizunean bizitza akademikoan baita oposizioak prestatzeko momentuan mota honetakoak oso erabilgarriak izango direlako.

### **4.- BALIABIDEAK**

#### **4.1- Baliabide analogikoak**

Erabiliko dira irakasleak osatutako apunteak klasea jarraitzeko.

Izango dituzte eskuragarri irakasleak prestatutako power pointak azterketak prestatu ahal izateko. Haiek zintzilik jarriko dira institutuko irakaslearen satean, eta oso inportanteak izango dira bereziki irudi anatomikoak edukitzeko.

Klaseak laborategia duen ikasgela batean ematen direnez hor izango ditugu beharrezkoak diren erreaktiboak, mikroskopioak etabarrekoak

#### **4..2- Baliabide digitalak**

Institutuko web orrialdean apunteak eta diapositibak agertzen dira.  
Google Docs, Google calendar. Youtubeko bideoak.  
Classroomean material osagarria kokatzen da.  
Formularioak

### **5.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK**

Ebaluazio irizpideak eta adierazleak honako hauek izango dira:

1. Giza gorputzaren egiturazko batasuna eta batasun funtzionala azaltzea eta antolaketa-mailak

eta oinarrizko bizi-funtzioak identifikatzea.

1.1. Diagramak eta modeloak erabiliz, ea azaltzen duen giza gorputzaren antolaketa orokorra.

1.2. Ea lotzen duen organo eta sistema bakoitza funtzio batekin.

1.3. Ea kokatzen dituen organoak eta sistemak anatomia-modeloetan.

1.4. Ea azaltzen duen organo eta sistema nagusien osaera.

1.5. Ea ezagutzen duen nork bere burua zaintzeko eta garbitzeko ohiturek patologian prebentzioan duten garrantzia.

2. Zientziaren prozedurekin bat datozen abilezia esperimental errazak aplikatzea, giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko problemak ebazteko erabiltzeko.

2.1. Ea interpretatzen dituen elikadurari eta ditetei buruzko esperimentu zientifikoetatik sortzen diren datuak.

2.2. Ea ordenatuta eta zehazki biltzen eta idazten dituen ikerlan txikietatik sortzen diren datuak.

2.3. Ea ezagutzen duen tresnak eta teknikak erabiltzeak giza gorputzaren azterketan duen garrantzia.

2.4. Ea hartzen duen parte lanen plangitza egiten, agindutako lana bere gain hartzen eta taldeak

erabakitzen duena onartzen.

2.5. Ea baduen lan esperimentalarekiko interesik eta ea hizkuntza zehatza erabiltzen duen.

3. Informazio- eta komunikazio-iturriak egokiro erabiltzea eta, giza organismoari buruzko ezagutzaz jabetzeko, egungo munduan zer garrantzi handia duten balioestea.

3.1. Ea bere kasa bilatzen dituen ikerkuntzaren esparruan erabili ohi ditugun testuak eta dokumentazio-bideak.

3.2. Ea erabiltzen, konparatzen eta laburtzen dituen informazio-iturriak.

3.3. Proposatzen den problemaren bati buruzko lan monografiko laburrak ea egiten dituen.

3.4. Ea ezagutzen duen giza gorputzari buruzko ezagutzan aurrera egiteko informazio-iturriek duten garrantzia.

3.5. Ea zehaztasunez bilatzen duen hainbat iturritako informazioa eta ea informazioa hautatzen, konparatzen eta ondorioak ateratzeko konbinatzen duen.

Ebaluazioa baloratzeko honako tresna hauek erabiliko ditugu: froga idatziak, ariketak,

txostenak, proiektuak eta gela barruko behaketa zuzena (arreta, ardura, parte hartzea, lanak egitea eta hitzartutako epeak errespetatzea baloratzeko).

## **6.- EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio bakoitzean batez beste hiru proba idatziak egingo ditugu. Oso objetiboak direnez eta bigarren mailako ikasleak direnez nire ustez azterketa hauen kalifikazioa parterik inportanteena izango da.

\*Azterketen batezbestekoak notaren % 90 balio izango du

\*Gainontzeko %10 jarrera, laborategiko lanak eta talde-lanen bidez lortuko da

### **BERRESKURAPEN SISTEMA**

Gainditu ezean berreskurapen bat izango dute ebaluazioaren zehar ikusitako edukinak gainditu ahal izateko.

Departamentu burua:

Data: